

2023an helburu estrategiko bakoitzean zer izatea nahi dugun IRUDIKATU

HELBURU ESTRATEGIKOA	Funtsezko Esparruak	Zelan irudikatzen duzu arlo bakoitza 2023an? Hiruzpalau ideia jarri
1. Helburua Euskara Ondorengoetaratzea (transmisioa) jabekuntza	1.- Familia 2.- Irakaskuntza 3.- Euskalduntze Alfabetatze	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara “urrun” sentitzen dutenen kopurua jaitsi (etorkinak, Gernikara iritsi berriak) - Etxean/Familian euskararen erabilerak gora egitea (%50/60/80ak euskaraz egitea) - Familietako hizkuntza ohiturak aldatzea eta helduak eredu izatea - Irakaskuntzan euskara eskola girora ez mugatzea - Eskolaz kanpoko ekintzak, mendi irteerak, attitte-amamekin elskarrizketak.....indartu - Eskolaz kanpokoetan monitore euskaldunak izatea denak. - Irakaskuntza zentroetako Hizkuntza Normalkuntza Proiektuak %80an garatzea - Euskararen erabilera eskoletan igo; euskararekiko jarrera positiboa nagusitzea, eta kalitatea ere gehitzea - Irakaskuntza zentroetan gurasoen batzarrak eta guraso eskolak euskara hutsean egitea - Irakaskuntzan benetako euskalduntzea lortu eta erabilera areagotu - Euskalduntze-alfabetatze zerbitzuak doakoak izatea eta matrikulazioa gehitzea - Euskalduntze/Alfabetatzera doan jendea motibatuta joatea eta kontzientziazioa indartze - Berbalagun indartu eta proiektuak gora egitea - ”D” ereduan benetako euskalduntzea lortu eta kalean erabiltzea bermatzea - Euskara ikasteko erraztasun gehiago (ordutegia, formatu aldetik....) - D ereduan eskolatzen direnengan euskararen ezagutza bermatzea.



HELBURU ESTRATEGIKOA	Funtsezko Esparruak	Zelan irudikatzen duzu arlo bakoitza 2023an? Hiruzpalau ideia jarri
<p>2. Helburua Euskararen erabilera</p>	<p>4.- Administrazioa</p> <p>5.- Gune geografiko euskaldunenak</p> <p>6.- Arlo sozio-ekonomikoa</p> <p>7.- Aisia eta Kirola</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udal zerbitzuak euskaraz eskainiko dira %100ean. - Kultur Etxeko/Udaletxeko langileek euren artean ere euskaraz egitea - Norbanakoaren tokian tokiko euskararen erabilera indartzea (hizkuntza ohiturak) - Lehenengo hitza euskaraz egiteko ohitura izatea (hizkuntza ohiturak) - Euskararen erabilera kalean areagotu eta harreman sozialak euskaraz garatu (hizk. ohiturak) - Helduen artean euskararen erabilerak prestigio gehiago izatea (hizk. ohiturak) - Helduek kalean Euskararen erabilera areagotu (%50) - Haurren erabilera informala kalean areagotu (%72/90), gutxienez eskolan erabiltzen den beste. - Euskara Planak izatea 5 langiletik gorako enpresa guztietan - Paisaia linguistikoa euskararen presentzia nagusi izatea merkataritzan, banketxeetan, ostalaritzan - Ostalaritzan eta enpresa munduan euskararen erabilera bultzatu, areagotu, eta esparrua euskaldundu - Norbanakoaren erabilera indartzea kirolean eta aisian (...%100ean euskaraz garatu kirola eta aisia) - Kirol taldeetan euskararen ikuspegia aintzat hartu gazteei eta nagusiei begira (entrenatzaileek ardura berezia izatea) - Erreferente diren Kirol elkarte nagusiak euskara hutsean funtzionatuko dute - Kirolean ahalik eta euskara gehien entzutea - Kirol saioetan harmailetan orokorrean giro euskaldunagoa egotea (animatzeko kantan, leloak,) - Umeen arteko jolasetan/kaleko erabileran euskara nagusi izatea (%70/90)



HELBURU ESTRATEGIKOA	Funtsezko Esparruak	Zelan irudikatzen duzu arlo bakoitza 2023an? Hiruzpalau ideia jarri
<p>3.- Helburua Euskara elikatzea</p>	<p>8- Liburugintza 9.- Kulturgintza 10.- Corpus plangintza 11.- Hedabideak 12.- IKT (Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurzaletasuna bultzatu.... - Domeketan umeentzat pelikulak/ikuskizunak euskaraz izatea - Kultur eskaintza erabiltzaileentzako erakargarriagoa izatea, hurbilagokoa izatea - Euskarazko Kultur eskaintza areagotu - Euskarazko komunikabideak irakurleentzat erakargarriagoak izatea, hurbilagokoak - Euskara Udal komunikazioetan bultzatu/nagusitu... - Publizitatea eta paisaia linguistikoa zaintzea beti - Helduak eredu izan, euskaraz bizitzeko. - Sare sozialetan euskararen erabilera indartzea, maila pribatuan zein publikoan - IKT: erakargarriak diren edukiak eta formatuak landu - IKT startup euskaldun programa bat sortzea - IKT: sare sozialak euskara hutsez izatea portzentaia handi batean